

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

97/2024 Foru Agindua, urriaren 7koa, norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia onesten duena, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko barrendegian 2023-2024 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia proposatu du, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko barrendegian 2023-2024 ikasturtean ikasgela lekualdatuen gastuak finantzatzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenagoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen lekualdatutako ikasgelen (2023-2024) gastuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia, foru agindu honenkin batera I. eranskinean (deialdia) ageri dena. Deialdia 40.000,00 euroz hornitua egongo da gehienez, eta Diputatu Nagusiaren Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak arautzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan (ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa) aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

Bigarrena. Gastu hori 2024ra luzatutako Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 25201. G/335251/48100254 partidatik ordainduko da.

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik eman ez bada, erakunde eskatzaileek eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertu ahal izango du.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko ebazpena eman zuen organo bereari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 7a

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza foru diputatua
JONE BERRIOZABAL BÓVEDA

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

ERANSKINA

2023-2024 IKASTURTEKO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO BARRENDEGIKO IKASGELA LEKUALDATUEN GASTUAK FINANTZATZEKO LEHIAKETA BIDEZKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA**Lehenengoa. Xedea eta helburua**

Deialdi honen xedea da Arabako euskaltegiei laguntzea haiei loturiko ikasgela lekualdatuek eragindako gastuak ordaintzen, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak, Diputatu Nagusiaren Sailaren dirulaguntzak (ALHAO 84 zenbakia, 2020ko uztailaren 27koa) arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, xedatutakoaren esparruan.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ez da izango, inolaz ere, 40.000,00 euro baino gehiago, zeinak egotziko baitzaizkio 2024ra luzatutako Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko 25201. G/335251/48100254 "Gela lekualdatuen dirulaguntzak" aurrekontu kodeari.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta kanpoan geratuko direnak

Deialdi honetako dirulaguntzak eskatu ditzakete euskaltegiek, baldin egoitza Araban edo Trebiñuko barrendegian badute eta euskaltegia dagoen herritik kanpo ikasgela lekualdatuak badi-tuzte. Euskararen Foru Zerbitzuak ikasgela lekualdatuei buruzko ziurtagiria eskatuko dio HABEri.

Diputatu Nagusiaren Sailaren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituenak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak hirugarren oinarrian aipatzen dituen egoeretan dauden euskaltegiak geratuko dira deialdi honetatik kanpo.

Laugarrena. Laguntzen zuzkidura

Diruz lagungarria izango da euskaltegiaren Arabako egoitzatik euskaltegi bakoitzari loturiko ikasgela lekualdatua edo ikasgela lekualdatuak dauden udalerrira arteko joan-etorriko kilometro-gastua 2023-2024 ikasturtean izandako eskola egunen kopuruarekin biderkatuz.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

1. Eskaerak aurkezteko epea hogeit hamar egun balioduneko izango da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, erakunde interesdunak, pertsona juridikoak diren aldetik, behartuta daude eskaerak telematikoki aurkezteko, berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ikasgela-lekualdatuen-gastuak-finantzatzeko-dirulaguntzak>; hau da, "2023-2024 aldiko gela lekualdatuen gastuak finantzatzeko laguntzak" izeneko dirulaguntzak izapidetzea), zeinetara iritsi baitaiteke Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

AFAREN egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKQ sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza-nola-sartu>.

3. Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, pertsona onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko. Erakunde eskatzailea berariaz horren aurka badago, erakundeak berak aurkeztu beharko ditu ziurtagiriak.

4. Eskaeran akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balitz, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpenaren ondoren.

Seigarrena. Prozeduraren instrukzioa

1. Euskararen Foru Zerbitzua izango da prozedura bideratzeko organo eskuduna, hain zuzen, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saileko Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaritzakoa.

2. Dirulaguntzak puntuazio bidezko banaketa sistemaren bidez banatuko dira. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa —40.000,00 euro— euskaltegi guztiek egindako kilometro kopuruaren artean zatituko da. Horrela, puntuaren balioa zein den jakingo dugu, eta gehienez kilometroko 0,70 euro eman ahal izango da.

Zazpigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak balioespen batzordeak aztertuko ditu, zeinak osaera hau izango baitu: lehendakari, Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaritza; kideak, Euskara Foru Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bat; Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzekoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz.

2. Eskatzaileari ez zaio entzunaldirik eskainiko, zeren eta, ebazpena ematean, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez dira aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Sei hilabeteko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, interesdun entitateek eskaera ezetsi egin dela ulertu beharko dute.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkia eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 43. artikuluan xedatutakoarekin.

6. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

Zortzigarrena. Laguntzak ordaintzea

Dirulaguntza osorik euskaltegi bakoitzari ordainduko zaio, dirulaguntza emateko ebazpena hartu ondoren.

Bederatzigarrena. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik izanez gero, eta honako hauekin batera beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratuz gero erakunde publiko edo pribatu batek emanik, gerta liteke dirulaguntzak esleitzeko ebazpena aldatzea, are dirulaguntzak itzuli beharra ere.

Hamargarrena. Dirulaguntza itzultzea

Esleitutako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen Foru Arauak ezarritako kasuetan.

Arabako Foru Aldundiari itzuli behar zaizkion dirulaguntzak itzultzea izaera publikoko eskubidetzat joko da, Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 21. artikulua-ren I letraren arabera, eta foru arau horren 25. artikuluan adierazitakoaren arabera kudeatuko dira.

Hamaikagarrena. Garapena

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Foru Diputatuak deialdia garatzeko egoki jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta behar diren ekintzak egin ahalko ditu onuradunei datuak eskatzeko, eta ziurtatzeko aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarrietan araututakoa bete dela. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere eman beharko dute.

Hamabigarrena. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzerakoan zalantzarik sortzen bada, aldundi honetako Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak ebatziko du.

Hamahirugarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzekin batera, organismo edo erakunde publiko nahiz pribatuek, estatuko nahiz nazioartekoek, jarduera edo programa bererako esleitutako dirulaguntzak ere jaso ahal izango dira, betiere dirulaguntza horren zenbatekoa ez bada, bakarka nahiz beste dirulaguntzekin batera, matrikularen kostua baino handiagoa.

Hamalagarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio hedabideetan. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratuko da: www.araba.eus.